IZENA:
ASPASOR. Arabako Gorren Guraso eta Lagunen Elkartea

Posta-helbidea:
Arantzabal kalea 2, behea, 01008
Vitoria-Gasteiz, Araba

Telefono-zenbakiak:
945 287 392 // 605 710 026 (WhatsApp)

Logoa:

Helbide elektronikoa:
info@aspasor.org

Webgunea:
https://www.aspasor.org/

QR kodea:

Nor diren:
Arabako pertsona gorren gurasoen eta lagunen elkartea. Pertsona gorren eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzeko eta haien familiei laguntzeko lan egiten du, autonomia, gizarteratzea eta komunitatean erabateko parte-hartzea sustatuz.

Zein talderi zuzentzen zaizkion:
Pertsona gorrak eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak.

Zerbitzuak eta Programak:

- **Arreta, orientazio eta laguntza** zerbitzua, gorreriarekin eta entzumen-desgaitasunarekin lotutako guztian.
- **Lan-bitartekaritza** zerbitzua, enplegu-poltsa duena.
- **Komunikazio** zerbitzua (hizkuntzaren garapena, irakurketa eta idazketa, zeinu-hizkuntza…).
  *__Ikastxoko__: **eskola-errefortzurako** bi gune haur, nerabe eta gazte gorrentzat: bata Lehen Hezkuntzarako eta bestea Bigarren Hezkuntzarako eta LHrako.
- **FM igorgailuak maileguan** uzteko zerbitzua (Frekuentzia Modulatua: hiztunaren ahotsa pertsona gorraren audiofonoetara edo inplanteetara zuzenean bidaltzen duen gailua).
- **Audiofono-bankua** baliabide ekonomiko mugatuak dituzten pertsonentzat.
- Sozializazio-eremua:
  *__Zeinutxoko__: 6 eta 14 urte bitarteko haur gorrentzat edo entzuleentzat zeinu-hizkuntzan hainbat jarduera mota egiten diren gunea.
  *__Zeinu-hizkuntza__ ikastaroa pertsona gorren **senideentzat**.
  *__Zeinu-hizkuntza__ ikastaroa **profesionalentzat**, batez ere zeinu-hiztun gorrekin lan egiten duten hezkuntza-arlokoentzat.
  *__Ezpain-irakurketa__ eta beste baliabide batzuei buruzko tailerra (bereziki gorreria berantiarra eta/edo entzumen-narriadura duten 50 urtetik gorakoentzat).
  *__Kultura- eta kirol-jarduerak__.
  * **Hitzaldiak**, sentsibilizazioa eta eragin soziala.
- **Arreta emozionala eta psikologikoa**, ahozko hizkuntzan edo zeinu-hizkuntzan, komunitate gorrean espezializatua.

Beste datu interesgarri batzuk:
Zerbitzu batzuetarako, erakundeko bazkide izan behar da; adibidez, FM igorgailua maileguan hartzeko edo arreta psikologiko espezializatua jasotzeko. Kuota 60 €/urteko da, baina zailtasun ekonomikoak dituzten familiak ordaindu gabe egin daitezke bazkide.